Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko azaroaren 23a, asteartea — 224 — Martes, a 23 de noviembre de 2021



## IRUNGO UDALA

*Iragarkia*

2021eko azaroaren 3an, alkate-udalburuak 1214 zenbakiko Ebazpena eman zuen, zeinak honela dioen:

«1. Behin betiko onestea 2.1.07 Jaizkibel eremua Birzatitzeko Proiektua.

2. Aranibar Berri SL enpresari eskatzea udalari zenbateko hauek ordain diezazkion, adierazten den kontzeptuagatik:

— *Kontzeptua:* Konpentsazio ekonomikoa Hirigintzako aprobetxamenduaren % 15.
*Zenbatekoa:* 114.812,25 €.

— *Kontzeptua:* Zuzkidura-defizita.
*Zenbatekoa:* 12.714,80 €.

Zenbateko horiek hilabeteko epean ordainduko zaizkio udalari, ebazpen hau jakinarazten denetik aurrera zenbatuta, eta, betiere, proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzeko administrazio-ziurtagiria eman aurretik.

3. Birzatiketa proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzeko administrazio-ziurtagiria egitea, birpartzelazioa onesteko erabakia administrazio-bidean irmo bihurtzen denean eta 2. puntuan aurreikusitako ordainketa egin ondoren.

4. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Honen aurka, aukeran, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabetean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta; edo, bestela, zuzenean aurkaratu, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.»

Argitaratu egiten da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43. artikulua betetzeko.

Irun, 2021eko azaroaren 9a.—Alkatea, eskuordetuta, Hirigintzako teknikaria. (7280)

## AYUNTAMIENTO DE IRUN

*Anuncio*

Con fecha 3 de noviembre de 2021 por la Alcaldía Presidencia, se ha dictado la siguiente Resolución n.º 1214:

«1.º Aprobar definitivamente el Proyecto de Reparcelación del ámbito 2.1.07 Jaizkibel.

2.º Requerir a Aranibar Berri S.L. para que proceda a ingresar en el Ayuntamiento las siguientes cantidades y por el concepto que se indica:

— *Concepto:* Compensación económica 15 % aprovechamiento urbanístico.
*Cantidad:* 114.812,25 €.

— *Concepto:* Déficit de dotaciones.
*Cantidad:* 12.714,80 €.

Dichas cantidades serán abonadas al Ayuntamiento en el plazo de un mes a contar desde la notificación de la presente Resolución y, en todo caso, de forma previa a la expedición de la certificación administrativa para la inscripción del Proyecto en el Registro de la Propiedad.

3.º Proceder a expedir certificación administrativa para la inscripción del Proyecto de Reparcelación en el Registro de la Propiedad una vez firme en vía administrativa el acuerdo aprobatorio de la reparcelación y realizado el pago previsto en el punto 2.º

4.º La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.»

Lo que se publica en cumplimiento de lo previsto en el artículo 43 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

Irun, a 9 de noviembre de 2021.—El alcalde, p.d., la técnico de Urbanismo. (7280)

EK\CV GAO-I-2021-07280